

Imanol Murua. Gurekin bego



IRITZIA

JOAN MARI TORREALDAI

Lantzean behin Imanol eta biok elkarrekin bazkaltzen genuen, mundua konponitzeko.

Halako batean, zera galdetu zidan: niri buruzko liburu bat egin-go al huke? Alkartasunatik proposatu omen zioten, omenaldi gisa edo. Baietz esan nion. Errazena egina nuen. Gero etorri ziren arazoak: nola laburbildu Imanol bezala «a tope» bizi izan den baten bizitza? Txiki-txikitatik hasi zen hara eta hona: kirolean (futbola, korrika, boxeoa, trainerua, golfa), herriko arazoetan (elkartean, udal-txean, ikastolan), politikan (Alkateen Bergarako Mugimendua, alkate, diputatu, Ahaldu Nagusi), eta beste. Mundu asko, eta denetan Imanol protagonista.

Nola egin? Nola margotu Imanolen irudia? Bide luzeena hartu nuen: Imanolen entrebistaz gainera bidelagun izan dituen batzuen laguntzaz osatuko nuen irudi hori. Azken batean, puzzle baten gisa osagaiak kokatzea izango zen nire lana. Bide luzeena hartu nuen, bai, baina bai aberatsa eta eman-korra.

52 lagun entrebistatu nituen. Denetarik: koadrilakoak, familia-koak, elizgizonak, politikariak (alderdiko, abertzale, ez-abertzale, aurkariak), kulturako jendea, ar-

tistak, irakasleak. Testigantza horiek guztiak jasoko nituen liburuan, gordin-gordin.

Imanol joan zaigunean liburuarekin gelditu naiz. Eta errepassatzen hasi naiz. Sekulako balioa ematen diet testigantza horiei. Bat-batekoak direlako, esan beza-lako jasoak, sasi-orrazketarik gabe. Hor dago Imanol osoa, autentikoa, jatorria, kanpexanoa, gertuko, saiata, mugitua, gizon osoa, sintzeroa, oroz gainetik pertsona, berru aberatseko gizona, karguak al-

datu ez zuen herritarra. Alkate hainbat urtez izan arren, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izanda ere, Imanolek Zarautzen jarraitu zuen bizitzan, etxe berean, koadrila berarekin.

Pertsona maitagarria, eta maitatua. Arrazoi du Miguel Buen sozialistak dioenean ez duela Imanolen etsairik ezagutzen. Aurkariak bai, noski, baina etsairik ez. Aitorpen hoberik bai ote, politikan hainbeste urte egon den batentzat?

Imanol Murua Gipuzkoako al-

kate liburuaz ari naiz, 2004an argitaratu emana. Liburu horri esker Imanol sakonki ezagutzeko aukera izan dut. Bera, bere familia, eta bere inguruak. Plazer bat eta ohore bat izan da niretzat. Ordu asko igarotitugu elkarrekin, asko. Eta lehen baino askoz lagunago egin gaitu liburuak.

Imanol joan zaigularik, liburuaren beste aldean jarri naiz. Elkarriketatuaren lekuan. Eman dezagun egileak galdetzen didala zer azzpimarratuko nukeen Imanol buruz. Besteek esan eta nik bildu ditudanak ahaztu gabe, hiru gauza nabarmenduko nituzke oraintxe bertan.

Bat, Imanol, gizon etiko. Teo-

ria gutxi, aldarrikapen gutxiago, baina balio etikoak bete-betean bizi zituen Imanolek: lanaren balioa, herriaren aldeko zerbitzua eta entrega, ideologien gainetik pertsona, baieka kontsentuaren eta justiziaren bidez. A ze eredu «proposamen etiko» zurrumbilozan orobatuturik dabilen politikarentzat.


Bi, politikari kulturazale amorratua. Ez zuen kulturarako sentiberatasuna bakarrik, kulturari sekulako garrantzia ematen zion. Arteleku, Koldo Mitxelena Kulturunea berak sortu zituen, artisten laguna zen.

Hiru, euskaltzale grinatsua. Euskara maite eta praktikatu bakarrik ez, euskararen aldeko hainbat neurri hartu zituen udaletxean eta Diputazioan. Bertsozale praktikantea zen. Testigantza ugari bil daitezke frogara edo lekuko.

Eta lau: *Euskaldunon Egunkaria*-ren defendatzailea. 90eko hamarkadaren hasiera haietan, *Euskaldunon Egunkaria* boikot instituzionala jasaten ari zenean, Eusko Jaurlaritzako boikot hori Imanolek hautsi zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan, beste batzuen laguntzaz. Imanolek dirua lortu zuen *Egunkaria*-rentzat, publizitate instituzionala bideratu zuen egunkarira. *Egunkaria*-k asko zordio Imanoli, agian bizitza bera.

Egunkaria itxi zutenean eta gu atxilotu, oso jarrera aktiboa hartu zuen kontra. Ahal izan zuen toki guztietan azaldu zuen bere jarrera, idatziz eta hitzez. Azkenez bera bisitatu nuenean ere, hiruzpalau egun hil aurretik, gurea (epaiketa) zer moduz zihon galdetu zidan. «Itxaron gelan gaudek» esan nion. «Ni bezala», erantzun zidan, ziplo. Heriotza ate joka zuen giza joak, bazekien berak, baina gutaz arduratu zen orduan ere.

Gehien behar dugunean alde egin digu Imanolek. Gurekin behar dugu, gurekin egongo da.



Imanol Murua berari buruz Joan Mari Torrealdaik idatzitako liburu sinatzen 2004ko abenduan. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

EAEko PPrek kongresua aurreratzea lortu du San Gilek, eztabaida sutso baten ostean

«Ados ez dagoenarekin elkarrizkatzeko gai den alderdia» nahi duela dio Mariano Raxoik

ERREDAKZIOA

Donostia

Mariano Raxoiren eta Maria San Gilen arteko harremana tenkatzean ari da. «Konfiantza» berreskuratzeko ezean EAEko PPrek presidentetza berriz ez duela hartuko iragarri du eta, hori gutxi balitz bezala, EAEko PPrek zuzendaritza berria osatzeko kongresua aurreratzea lortu du EAEko PPrek presidentek.

Proposamen hori jarri zuen mahai gainean San Gilek PPrek Eskualdeko Zuzendaritza Batzordeak herenegun Donostian eginitako bileran. Bere alderdiko agintariak kontrako eskatu bazioten ere, San Gilek tinko eutsi zion bereari: ez da presidentetzara aurkeztuko Raxoik bere proiektu politikoan «birarrik» ematen ez badu.

Eztabaida sutsoa izan zen, lau ordu iraun zuen eta agerian utzi zuen San Gil eta bere alderdiko agintarien artean leizea zabaltzen ari dela. Alderdiko kongresua aurreratzea lortu badu ere, bere proposamenaren aldeko botoak absenteziaren azpitik geratu ziren. Alderdiak EAEn dituen 61 buruz-



Maria San Gil. JAVIER ETXARRRITA / EFE

gietako 28k baino ez zuten babestu haren proposamena. Abstentzio gehiago izan ziren (32) aldeko botoak baino. Hala ere, EAEko PPrek kongresua uztailearen 18 eta 19an egingo da, Espainiako PPrek kongresuaren ostean.

RAXOIREN MUGIMENDUAK. Herenegun irudikatutako haustura, Espainiako PPrek egituraren dauden tirabiren isla da hein handi batean. PPrek ekainean egingo duen kongresuaren txostengilea izan da San Gil, baina hura ez sinatzea erabaki du, «irizpide ezberdintasun sakonak» zituelako. Ez da konfiantza kontu soila, beraz; San Gilen irudiko, printzipio politikoak ere badaude

ezbaian. Jose Maria Aznar Espainiako gobernuburu ohi eta PPrek ohorezko presidentek hartarazi zuen herenegun: «Politikagintzan konfiantza eta printzipioen defentsa ezinbestekoak dira».

Raxoik, ordea, iragarri du alderdiaren barnean «mugimendua» beharrezkoa dela, eta pausoak ematen hasi da. Alberto Ruiz Gallardon Madrilo alkatea ekainean aurkeztuko duen hautagaitzako zuzendaritzako kide izango dela iragarri zuen atzo Raxoik. Gallardon aurkezpenarekin batera mezu garbia bota zuen: «Sakoneko printzipioei uko egin ez dion zentzoko alderdi erreformista bat» osatu nahi du, «ados ez dagoenarekin elkarrizkatzeko gai den alderdia» nahi du. Zenbaitzuen irudiko, azken esaldi horrek Raxoik alderdi nazionalistekin izan nahi duen jarrera aldatetaren isla da; San Gilen kritiken oinarrian dagoen «sakoneko printzipioa», alegia.